

# Euskarazko komunikabideen audientzia azterketarako datu zientzia

behategia@behategia.eus  
www.behategia.eus  
946018154

Libe Mimenza Castillo, Naroa Burreso Pardo, Ane Martinez Juez, Hiba Castro Egia, Josu Amezaga Albizu (NOR ikerketa taldea, UPV/EHU)

**Behategia (Euskal Hedabideen Behatokia)** euskarazko komunikabideen ikerketarako 2016an sortutako espazioa da.


Euskarazko komunikabideak eta komunikazioa ikergai gisa hartuta, **hedabideen kontsumoa eta erabiltzaileak** ezagutzeko xedez planteatutako ikerketek osatzen dute NOR Ikerketa Taldearen Behategiko analisi eremua, **audientzia ikerketa klasikoa datu zientziarekin** gurutzatuz.

Jarraian azaltzen dira abian diren **hiru proiekturen** nondik norakoak:

## BEHA

**Helburua:** datuen kultura sustatzea

Euskal hedabideen web-analitika datuen jarraipena ahalbidetzen duen panel interaktiboa (**BEHA panela**)




## D<sup>i</sup> (Datu integralak)

**Helburua:** datu-baseak fusionatzeko metodologia garatzea

Pilotua (2022): CIES + Ikusiker

Bidean (2023): CIES + Inkesta Soziolinguistikoa

Aurrera begira (2024-25): CIES + Behategia Analytics  
CIES + Ikusiker




**Helburua:** audientzien azterketa analisi prediktibo eta preskriptiboaren bitartez egitea

- Hegoaldeko hedabide tradizionalen kontsumitzaileen profilen *clustering*-a
- Hedabideen kontsumoa aurreratu duten modeloen eraikuntza
- Hedabideen kontsumoan eragiten duten aldagaien identifikazioa

## Komunikazioaren azterketarako datutegia

**Helburua:** euskarazko komunikazioaren inguruko datuak batzea

**Datu-bilduma:** adierazle soziodemografikoak, ekoizpen datuak, audientzia datuak edota euskal hedabideen direktorioa ditu kontsultagai egun.



Laguntzaileak:

